

SOINU AZTERKETAREN BIGARREN FASEA

Udalak Zikuñagako Papelerako soinuak jaisteko neurriak hartuko ditu

■ Azterketak dio Papelerak iaz baino soinu haundiagoa ateratzen duela eta legeak jarritako neurritik gora dabilela ■ Soinu horrek Osiñaga eta Zikuñagakoez gain, Atzietako bizilagunak ere kejatu arazi ditu.

UDALAK soinu azterketaren bigarren fasearen emaitzak aurkeztu berri ditu eta bi ondorio nagusi ikusten dira: 1) Zikuñagako Papelerak iaz baino ere soinu haundiagoa ateratzen du eta kejak Atzietako bizilagunenganaino iritsi dira. 2) Floridan AMR enpresak, Epelen Atofinak eta beste zenbait enpresak iaz baino soinu txikiagoa ateratzen dute, horretarako hartutako neurriei esker.

Udala kezkatuta dago papelerak sortzen duen soinu kontaminazioa konpontzeko bidean ez egoteaz gain, oke-rera dijoalako eta neurriak hartzea erabaki du. Iñaki Arratibek zuzentzen duen Ingurugiro Batzordeak udal teknikariari plan bat egiteko agindu dio neurriaz kanpoko soinu horiek jaisteko. Itxura denez, Papelerak produkzioa haunditu izana eta motorrak kanpoan egotea izan liteke soinu horiek sortzeko arrazoi- etako bat. Soinu horrek Osiñaga, Zikuñaga eta Atzietako jendearen kejak ugaritu ditu.

Udalak agindutako azterketak jasotzen duenez, Jaurlaritzak ez dio enpresari inongo inpaktu azterketari eskatu izan azken urteotan, eta orain enpresak azterketa oso bat eskatua du egoera ikusi eta konponbiderako proposamenak bilatzeko. Azterketa horren emaitzak urrilarako espero dituzte.

Trafiko soinua

Hernanik kontaminazio akustikoa sortzen duen beste elementu garrantzitsua trafikoa da. Lehenengo fasean Zin-



Zikuñagako papeleraren motorrak estaltzea da Udalaren proposamenetako bat soinua jeisteko.

ZENBAIT ENPRESETAN HOBETU

Soinu azterketaren bigarren faseak erakusten du zenbait enprestako soinua jaitsi egin dela eta legearen neurri beretsuan dabilela.

koenean eta Urumea Ikastola ondoko kruzean neurtu zen soinua. Orain beste bi trafiko gune neurtu dira: Oialume eta Mandazubi arteko bariantea, eta Latsunbeko sarrera. Baitatean eta bai bestean, soinuaren neurria legeak diona baino haundiagoa da. Latsun-

TRAFIKOAREN SOINUA IXILTZEKO NEURRIAK

Trafikoak ere legeak onartzen duen neurrik gorako soinua sortzen du zenbait puntutan eta Udalak neurri batzuk hartzeko asmoa du.

beko bidea inguru erresidenciala da eta egunez 60 dezentibelio arteko soinua da neurri egokia eta estudioak 68 db-ko batez bestekoa atera du. Baina ordu puntutan ia 90 db-raino iritsi da. Legeak 60 dbtik aurrera inguru kontaminatuza konsideratzen du, eta 74tik

IÑAKI ARRATIBEL HIRIGINTZA

“Gure helburua da ez bakarrik soinu azterketak egitea, baizik eta neurriak hartzea soinu horiek gutxitu edo jendearenganako eragina jaisteko”

aurrera oso kontaminatua. Trafikoak sortutako soinuei dagokionez, Iñaki Arratibek Kronikari adierazi dio Udalak trafikoaren gaia puntu puntu aztertuko duela, eta leku eta arazo bakoitzaren-tako soluzio propio bat proposatuko duela. □

**Juan Maria Uriarte
Donostiako Gotzaiak
gaur hasiko du bisita
pastorala Hernanin**

JUAN Maria Uriarte Gotzaiak bisita pastorala egingo du Hernanira, herria eta bertako kristau elkartea gertutik ezagutzeko. Uriarte bihar arratsaldean hasiko du bisita eta aurreneko lana herriko gaixorik zaharrenak bisitatzea izango du. Ondoren, Famili Santuaren Misolariekin bilduko da eta gero, herrian barrena ibiliko da Hernani ezagutzen. Gotzaia ostegunetik igandera izango da Hernanin eta bilera eta bisitez gain, meza ere emango du hiru parrokietan larunbat eta igandean. Gotzaia bisita pertsonalak ere hartuko ditu larunbat egurdiaren. Interesatuek 943-556884 telefonora deitu. □


**Eziagon bi enpresa
berri jartzeko eskaria
gaur, Hirigintzako
Batzorde berezian**

HIRIGINTZA batzordeak bilera berezia egingo du gaur eta 11 puntuko gai ordena izango du mahai gainean. Horietako bi SEUR S.A eta TUPOPAK S.A enpresak Ezia- go poligonoan beren aktibitateak martxan jartzeko eskaria dira. SEUR S.A.ren lana aluminio fundizioa da eta TUPOPAK kartoizko tuboak egiten ditu.

Tabernak Akerregi eta Harineran Gaurko Hirigintza Batzordeak Akerregi eta Remy-Harineran bi taberna-jatetxe jartzeko kontsulta aztertuko du eta horrekin batera beste taberna-jatetxe-diskoteka bat jartzeko. Arratibelen hitzetan, tabernak jartzeko aukera badago, baina, oraingo legeak ez du beste diskotekari jartzen uzten.

Bestalde, Oraunek 400 metro inguru utziko dizkio lokaletan Udalerri Montesen.

Gaurko Hirigintza Batzordeko gainerako puntuak tramite kontraktu dira. □



OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

Asteartetik
larunbatera
zabalik.

OIALUME AIZOA
943 55 29 38
943 33 21 27



Hainbat tresna salgai:
- Mural frigorifikoa (motorra kanpoan dijona)
- Arkoi Konjeladore bat
- Kortadore
- 2 pixu (1000 PLU memoria)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurra, isplua eta argiaren eta normala argiaren
INFORMAZIO GEHIAGO
943 55 01 36 - 699 82 91 98

ALBERRO SAGARDOTEGIA



Sagardo Naturala
tolare
Hernaniko sagardoa
943 550019
Santa Barbara auzoa, 61



Sagastialdeko karretera ondoko berdinunean ari dira montatzen karpa.

Sagastialden 10.000 pertsonentzako karpa montatzen ari dira Sagarrondotik jaialdirako

■ Karpa, janari postua, txosnak, komunak eta bizilagunak babesteko bailatua montatuko dituzte, besteak beste ■ Kontzertu egunetan 450 pertsona arituko dira lanean.

SAGARRONDOTIK jaialdiak ostiral eta larunbat honetan Hernanin eskainiko ditu kontzertuak eta Sagastialde auzoan prestatzen ari dira halako jaialdi haundiak beharrezkoak dituen azpiegiturak.

Sagastialden 10.000 pertsonentzako karpa montatzen ari dira horrekin batera, txosnak eta komunak montatuko dituzte. Janari postua ere prestatzen ari dira eta bertan bokadilo eta oilaskoak

egongo dira salgai, besteak beste. Sagardoa ere ez da faltako eta kupeletatik edan ahal izango da gainera. Kontzertuaren eremu guztia bailatua egongo da, bizilagunen trenoak babestearren eta Sagastialdeko karretera irekita egongo da goizeko 08:00etatik gaueko 20:00etara. Kontzertu egunetan 450 pertsona egongo dira lanean eta antolatzaillek adierazi dute lana egin nahi duen jendea ongietorria izan-

go dela. Sarrerei dagokionean momentuz 3.000 bat sarrera saldu dituzte eta ostirala bitartean Hernanin bakarrik erosi daitzeke sarrerak. Hortik aurrera takillan erosi ahal izango dira eguneko 18 eurotan. Takilan 3.000 sarrera salduko dituzte arduradunek Kronikari esan diotenez. Takilak 20:00etan irekiko dira eta karpa 21:30etan. Autoentzako Parkinak seinalizatuak egongo dira. □

ESKOLA KIROLA



Urumea eta Langile ikastoletako waterpoloko ekipoak.

ASTEBURUKO EMAITZAK

| Pelota | Taldeak | Emaitzak |
|-----------------|-------------------------|----------|
| A lebin. M util | Langile D - Elizateko A | 0-4 |
| A lebin. M util | Txintxa - Langile | 3-5 |
| Boleibola | | |
| Infantil nesk | Langile - Lizeotanak | 3-0 |
| Kadete m ut | Lizardin - Amakudra | 0-3 |

ESKOLA arteko waterpolo partiduak izan ziren pasa den astebukaean Hernaniko kirolegiko igerilekuak. Infantil eta kadete mailan 4 partidu jokatu ziren eta bertan izan ziren, Langile, Urumea Hernaniko ikastetxeak eta Amara, Altza eta Herri Ametsako ikasleak. □



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00ETATIK AURERA
ERREMONTJE JAIALDIA:
1. part.: Uterga - Agirrezabala / Matxin III - Ion
2. part.: Ezkurra - J.Etxeberria / Altuna I - Lizaso
3. part.: Zeberi II - Urko / Altuna II - Etxabe
4. part.: Sarasua - Badiola / Agirresarobe - Olazar



ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS"ETAN SALGAI
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

Ezker Abertzaleak ekitaldi politikoa gaur

EZKER Abertzaleak ekitaldi politikoa egingo du gaur osteguna Biterin *Espaniari ez, autodeterminazioa* lemarekin. Ekitaldian errepresioa eta era-soak jasan dituzten pertsonak eta kolektiboek hartuko dute parte. Hernaniko Ezker Abertzaleak adierazi du "Espainiari ez eta Euskal Herriari bai esateko" garaia dela. Ekitaldian hauteskunde kanpainako nondik norakoak ere aurkeztuko dira. Gaur 20:00etan Biterin. □

HITZ BITAN

✓ HERNANI INSTITUTUA

Gurasoentzako ikastaroan izen ematea. Hernani Institutuak gurasoentzat ikastaro berezia antolatu du seme-alaben partehartzea eta ardura lantzeko bideak emateko, eta gaur da izena emateko azkeneko eguna. Interesatuak 943 551958 telefonora deitu. Ikastaroak lau helburu ditu: 1) Lanean eta familia bitztan seme alabak parte hartzera motibatzeko estrategiak landu, 2) gurasoentzako komunikazioan gaitasuna eta jarrerak hobetu elkarketetan eta errespetuan oinarritutako bizimodu hobetzeko, 3) familiako erantzukizunen desarroiloan oinarritutako autoritatea eta demokrazia baloreak bultzatu, eta 4) erantzukizuna lortu nahi denean eguneroko egoera konfliktoei konstruktiboki aurre egiten ikasi. Ikastaroa astelehen arratsaldeetan da eta martxoaren 1ean hasiko da.

✓ INAUTERIAK

Zozketako emaitzak. Unai Konpartsak errifak atera zituen inauterietan eta hauek dira zenbaki sarituak: Erlojurako, 0092; urdai azpikorako, 0857; eta DVDrako, 0548. Tokatu zaienek deitu 943 332271 telefonora. Gaurtik hasita hamabost egun daude sariak jasotzeo.

✓ ZINE KLUBA BITERIN

'Los abajo firmantes', gaur 22:00etan. Ostegune-tako zine klubaren barruan, *'Los abajo firmantes'* pelikula botako dute gaur. Federico Garcia Lorcaen *La comedia sin titulo* lana herriz herri antzesten dabilen teatro konpainia baten istorioa da.

✓ KIROLDEGIKO FRONTOIA

Frontoian ordua hartzeko zozketa gaur. Kirolegiko frontoia alokatzeako zozketa egingo da gaur 19:30etan kirolegiko bulegoetan. Izena ematea herenegun bukatu zen eta orain zozketa egitea falta da. Zozketatzen diren orduak arratsaldeko 19:00etatik 21:45etara bitartekoak dira eta frontoia urte osorako hartzen da.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur. Hirulaurden plataformak kontzentrazioa deitu du gaur 19:00etan Plaza Berrian, zigorraren hiru laudenak bete dituzten preso hernaniarrak libre uztea eskatzeko.

✓ AMHER ELKARTE MULTIKULTURALA

Bilera bihar. AMHER elkartek hamabosteroko bilera egingo du bihar, 19:30etan Biterin. Bilerak irekiak dira.

✓ KIXKAL TABERNA

Javi Ruiz emanaldia gaur. Kixkal tabernan Javi Ruiz emanaldia izango da gaur, gaueko 22:00etatik aurrera. Gitarra jo, kantatu, txistek kontatu eta abar egiten du Ruizek.

✓ ASTIGARRAGA

Bachata eta Salsa dantza tailerra. Astigarragako kultur etxearen Bachata eta salsa dantza tailerra egingo dute larunbat gauean, 23:00etatik 01:00etara. Tailerra 16-30 urte bitartekoak dago zuzendua eta izena kultur etxearen eman behar da. Prezia, 3,5 euro inguru. □

ZERBITZUAK

► TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Ambulatorioa: 943 006666
- Jokalari anônimoak: 943 331103

► FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- Gauet: Gorospe
Andoain. Ricardo Arregi 12
☎ 943 592415

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pisua salgai Elkanako kalean. 3 logela, sukaldea, sala, komona, trastero txikia... Erabat amueblatua. Prezia: 222.375 euro. Deitu: 699 46 14 90

Pisua salgai Etxeberri. Deitu: 943 55 28 82 - 943 33 09 48

Pisua salgai zentroan. 80 m2, 3 gela, sala, sukaldea eta komuna. Kanpoaldera eta igogailua du. Konpontzeko. 180.303 euro (30.000.000 pta). Ez deitu agentziek. 943 277743